



OÑATI
dabilen herria

Jaun/andre agurgarria

2020ko ALOÑA-URBIA-ko LARRERATZE KANPAINA:

1-ESKAERAK:

Aloña-Urbia-Oltzan ganadua larreratzen duten jabeek Udaletxeko bulegoetara ekarri beharko dituzte, **2019ko abenduaren 19a** baino lehen, datu hauek:

- a.- Nekazaritza ustialetaren titularraren izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta ustialetaren kodea.
- b.- Ardi, bildots eta ahari kopurua.
- c.- Behor kopurua.
- d.- Behi kopurua.
- e.- Erabiltzen duen/dituen txabola/k (herri lurretan eraikita badago bakarrik).
- f.- Ordainketa helbideratzeko kontu korrante zenbakia.

(EPE HORI IGARO ONDOREN EZ DA EMANGO BAIMEN GEHIAGO):

Era berean, urtero legez, jakinarazten dizugu **Artia-Txirikilaleku-Aizgain**-era ganadua bidaltzen dutenen zerranda osatuko dela.

Aloñan larreratzeak arautzeko Udal Ordenantza (2001/06/12ko GAO)

2-TASAK:

2020ko Aloñako larreratze-tasak ondorengo hauek dira:

Kontzeptua/ Concepto	Tasa/buruko/urteko (euro)/ Tasa/cabeza/año
Behiak / Behorak	9,60
Ardiak / bildotsak / ahariak	0,96
Txabola	17,41

Aloabel elkarteak eta Udalak deituriko auzolanetan parte hartzen duten ganaduzaleei %100eko hobaria aplikatuko zaie. Inguruabar hau ziurtatzeko egiaztagiria eskatuko da

Estimado Sr./Sra.

CAMPAÑA DE PASTOS EN ALOÑA-URBIA 2020

1-SOLICITUDES:

Los propietarios del ganado que pascen en Aloña-Urbia-Oltza, deberán pasar por las oficinas municipales **antes del 19 de diciembre de 2019** aportando los siguientes datos:

- a.- Nombre, apellidos, dirección y teléfono del titular de la explotación y código de la misma.
- b.- Número de ovejas, corderos y carneros.
- c.- Número de yeguas.
- d.- Número de vacas.
- e.- Chabola/s ocupada/s (sólo si está construida en terreno público).
- f.- Nº cuenta corriente donde domiciliar el cobro.

(NO SE CONCEDERÁ AUTORIZACIÓN DESPUES DE DICHA FECHA):

Asimismo, se hace saber que como cada año, se elaborará la relación de quienes suelten el ganado en **Artia-Txirikilaleku-Aitzgain**.

Ordenanza municipal reguladora de los pastizales en Aloña (B.O.G. de 12/06/2001).

2-TASAS:

He aquí las tasas por pastar en Aloña correspondientes a 2020:

A los ganader@s que tomen parte en los trabajos de auzolan convocados por Aloabel y el Ayuntamiento de Oñati se les aplicará un bonificación del 100% sobre la tasa de pastos. Para acreditar dicha circunstancia se solicitarán los correspondientes certificados.



OÑATI
dabilen herria

3-LEPOKOAK eta KROTALAK:

Aloñan larreratzeak arautzeko indarrean dagoen Ordenantzak ezarritako betebeharra da larreratutako animalia guztiak (behi zein zaldi-aziendak) behar bezala identifikatuta izatea.

Galdutako lepokoak: lepoko berririk behar izanez gero, aurretik galdutakoaren zenbakia eman beharko da.

Lepoko berriak: lepoko berririk beharko balute, dagokion animalia zenbakia eman beharko dute. Hauek, behin betiko baimenarekin batera emango dira u.

4-AUZOLANA:

Aloabel elkarteak (*Aloña Mendiko Abeltzale Elkarteak*) 2002. urtean sortu zen Oñatiko ganaduzale guztiak elkartzeko helburuarekin eta guztion interesen defentsan aritzeko. Horrekin batera, Administrazioarekin elkarlanean aritzeko zeregina du: ganaduen kontrolean laguntzea, ganaduen osasun kanpainak betearazten laguntzea, larre-tokiak hobetzeko lanak eta proposamenak egitea.

Aloabel elkarteak horrela adostuta, auzolanean urtero egin beharreko lanak taldeka egingo dira, bazkide zerrendatik txandaka talde berri bat osatuko delarik.

Larreak egoera onean mantentzeko ardua guztiona izanda, guztion lana eta inplikazioa ezinbestekoa da. Hori dela eta, auzolana sustatzeko helburuarekin Oñatiko Udalak 2020ko auzolanetan parte hartzen dutenei %100eko hobaria aplikatuko die larreratze tasan.

3-CROTALES y COLLARES:

La obligación establecida por la vigente Ordenanza de Pastos es que todo ganado (vacuno y equino) que se pretenda mantener en régimen de pastoreo debe estar adecuadamente identificado.

Crotales perdidos: si precisaran de nuevos crotales habrán de indicar el nº de crotal que se ha perdido.

Crotales nuevos: si precisaran de nuevos crotales habrán de indicar el nº de matrícula del animal para el cual solicitan el crotal. Éstos se entregarán junto con la autorización definitiva.

4-AUZOLAN:

La asociación Aloabel (*Aloña Mendiko Abeltzale Elkarteak*) se creó en el año 2002 con el objetivo de agrupar a tod@s los gander@s de Oñati y para trabajar en la defensa de los intereses de tod@s. Junto con todo eso, tiene la obligación de colaborar con la Administración en el: control del ganado, cumplimiento de las campañas sanitarias del ganado, trabajos de mejora de pastos y propuestas de mejora.

Tal y como ha acordado la asociación Aloabel, los trabajos anuales de auzolan se realizarán en grupo que se creará de forma rotacional de entre tod@s los soci@s.

Teniendo en cuenta que es de tod@s la responsabilidad de mantener los pastos en buen estado, es imprescindible el trabajo e implicación de tod@s. Es por ello que el Ayuntamiento de Oñati con objeto de fomentar el auzolan bonificará la tasa por aprovechamiento de pastos en un 100 % a quienes tomen parte en los trabajos de auzolan de 2020.



OÑATI
dabilen herria

5.- OSASUN BALDINTZAK

5.1.- HAZTERIA:

Partzoneria eta Aloña mendietan larreratzen diren zenbait artaldetan hazteri kasuen problematika dela eta, GOGORAZTEN DA:

Lehenengoa: 2020ko udaran Aloñako mendietan bere artaldea larrera bota nahi duten ganaduzale guztiei jakinaraztea, albaitari batek igorritako ziurtagiria aurkeztu beharko duela Oñatiko Udaletxean, non jasoko den bere artaldea osasun baldintza egokietan dagoela.

Bigarrena: ez da baimenik emango aipatu albaitariaren agiria aurkezten ez den bitartean. *(larreratze ordenantzaren aldaketa, 2010eko azaroaren 25eko Osoko Bilkuran)*

Hirugarrena:

Ziurtagiria, ganadua mendira bota baino lehenago igorria izan beharko da. **Ez da onartuko mendira bota baino hilabete lehenagoko aurreko ziurtagiririk.**

Laugarrena:

Xedatutakoa urratuz gero Epizootien Legearen eta horren Erregelamenduaren arabera zigortu ahal izango da.

5.2.- TRICOMONAS BOVINA:

Partzoneriarekin batera adostutako erabakiari jarraituta eta 2016an emandako kasuari aurre egiteko neurri bezala, 2020ko larreratze kanpainari begira, zezenak igo aurretik albaitari batek igorritako ziurtagiria aurkeztu beharko da Oñatiko Udaletxean, non jasoko den haziendako zezenak osasun baldintza egokietan daudela eta "Tricomoniosis bovina" gaitzetik libre daudela.

5.- CONDICIONES SANITARIAS

5.1.- SARNA:

Ante la problemática de la sarna en el ganado ovino que pasta en los montes de la Parzonería y en Aloña SE RECUERDA QUE:

Primero: Que todo ganadero de raza ovina que desee llevar su rebaño a los montes de Aloña durante el verano de 2020, deberá presentar en el Ayuntamiento de Oñati, un certificado expedido por un veterinario, en el que certifique que su rebaño cumple con las condiciones sanitarias exigidas.

Segundo: no se dará autorización definitiva mientras no se presente el citado certificado veterinario. *(modificación de la ordenanza de pastos en sesión plenaria de 25 de noviembre de 2010)*

Tercero:

Este certificado deberá ser expedido antes de que las ovejas suban al monte. **No se admitirán certificados anteriores a un mes de la subida a los pastos.**

Cuarto:

El incumplimiento de lo dispuesto podrá sancionarse con arreglo a la Ley y Reglamento de Epizootia.

5.2.- TRICOMONAS BOVINA:

En consecuencia con lo acordado con la Parzonería y para hacer frente al caso detectado en el 2016, de cara a la campaña de 2020, antes de subir al monte los toros se deberá presentar en el Ayuntamiento de Oñati, un certificado expedido por un veterinario, en el que certifique que los toros de la explotación cumplen con las condiciones sanitarias exigidas y que están libres de la enfermedad "Tricomoniosis bovina".



OÑATI
dabilen herria

Ez da baimenik emango aipatu al baitariaren agiria aurkezten ez den bitartean.

Xedatutakoa urratuz gero Epizootien Legearen eta horren Erregelamenduaren arabera zigortu ahal izango da.

5.3.- :BESTELAKO GAITZAK

2018ko larreratze kanpainaren baitan, “karbunko” deritzon gaitzak eragindako, txahal eta moxal batzuk hil ziren.

Ganaduzaleen artean, osasun baldintzak bete beharrak kezka eragin du.

Hori dela eta, jakinean jartzen da Udalak eta Partzoneriak, GFaren laguntzarekin larreratzen den ganaduaren osasun baldintzak erregulatuko duten Plan Sanitarioa lantzen diharduela.

INGURUMEN LAGUNTZAK

Nekazaritza ingurumenaren laguntzak edo “agroambiental” deritzen inguruan ganaduzaleen aldetik kezak jaso izan dira. Izan ere, larreratze deialdira apuntatzen diren ganaduzale batzuk, gerora ez dute beraien hazienda larreratzen, soilik, dirulaguntza jasotzeko helburuarekin apuntatzen baitira.

Laguntza horren helburua da mendiko larreen aprobetxamendua behar bezala kudeatzea, betiko abeltzaintza jarduerari eta kudeaketa konpromiso batzuei lotuta, mendiko larreek bete ditzaten, aldi berean, ekoizpen funtzioak, natura funtzioak eta paisaia funtzioak.

No se dará autorización definitiva mientras no se presente el citado certificado veterinario.

El incumplimiento de lo dispuesto podrá sancionarse con arreglo a la Ley y Reglamento de Epizootia.

5.3.- OTRAS ENFERMEDADES:

Dentro la campaña de pastos de 2018 se produjo la muerte de algunos terneros y potros como consecuencia de la enfermedad denominada “carbunco”.

Este hecho, ha generado preocupación dentro de los ganaderos.

Es por ello que se pone en conocimiento que el Ayuntamiento y la Parzonería con la ayuda de la DFG está trabajando en un Plan Sanitario que regule las condiciones sanitarias del ganado que sube a los pastos.

AYUDAS AGROAMBIENTALES

En torno a las ayudas agroambientales se han recibido quejas por parte de los ganaderos, ya que, algunos de los ganaderos que realizan la solicitud de pastos, a posteriori no suben el ganado a pastar. Únicamente se apuntan para recibir la subvención económica.

Esta ayuda tiene como objetivo la correcta gestión del aprovechamiento de los pastos de montaña, ligada al desarrollo de la actividad ganadera tradicional y al cumplimiento de una serie de compromisos de gestión, de forma que los pastos de montaña conjuguen las funciones productivas, naturales y paisajísticas.



OÑATI
dabilen herria

Hortaz, soilik nekazaritza ingurumenaren dirulaguntza jasotzeko helburuarekin larreratze deialdira apuntatu baina larreratzerik egiten ez duten ganaduzaleak Dirulaguntza Legeak xedatutakoa urratzen dutela gogorarazten da, ondorioz, horrelako egoera baten aurrean indarrean dagoen araudiaren arabera zigorra ezarri ahalko dela.

Hau guztiaren berri ematen lagunduko duzelakoan, har ezazu nire agurra.

Oñatin, 2019ko azaroaren 28an

Izaro Elorza Arregui
Oñatiko Alkatea

Por lo tanto, se recuerda a aquellos ganaderos que realizan la solicitud de pastos únicamente con el objeto de recibir la subvención económica pero no con objeto de pastar el ganado, que infringen lo regulado por la Ley de Subvenciones. Es por ello que ante una situación como esa se podrá sancionar conforme a la normativa vigente.

Esperando que ayude a difundir todo lo expuesto, reciba un cordial saludo.

Oñati a 28 de noviembre de 2019

Izaro Elorza Arregui
Alcaldesa de Oñati